

## **MELILLAKO HESIAREN INGURUAN 2022KO EKAINAREN 24TIK 25EKO GOIZALDEAN GERTATUTAKO SARRASKIA SALATZEKO MOZIOA**

Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan sarraski bat gertatu zen. Behin behineko balantzearen arabera, 37 pertsona hil dira eta askoz gehiago larriki zaurituak izan dira.

Gertaera larri hauek Espainiako gobernuaren migrazio politiken porrotaren adierazpen tragikoa dira. Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen (APDHA) “2021eko Hegoaldeko Mugako Fluxu-Migratorioaren Balantzea”k berriki emandako datuen arabera, gutxienez 2.126 pertsona hil dira Espainiako Estaturako migrazio-ibilbidean, aurreko urtean baino % 24 gehiago. Hala ere, desagertutako pertsonen kopurua askoz ere handiagoa dela adierazi du erakundeak.

Horrekin batera, ezin dugu alde batera utzi Melillako gertaeren ondoren Espainiako Gobernuko presidentek adierazitako immigrazioaren aurkako diskurtsoa erradikalizatu egin dela. Bere adierazpenetan, mugaren bi aldeetako polizia-jarduera hilgarriak justifikatzeaz gain, poliziaren lana ezinbestekotzat jotzen da migratzaileek erabiltzen duten indarkeriaren aurrean Estatuaren segurtasunerako, haien jarduera “ondo ebatzitako operaziotzat” jotzen baita.

PSOEK hamarkadak daramatza giza eskubideen aurkako migrazio-politika errepresiboak aplikatzen: atzerritarrei buruzko Legea, CIESak, hegoaldeko mugaren militarizazioa armada bidalita, “lotsaren” zuzentaraua, “beroan” egindako kanporaketak, mugen kudeaketa kanpora ateratzeko Marokorekin sinatutako akordioak, hirugarren herrialdeetako migratzaileak Marokon berriz hartzeko akordioak, Ceuta eta Melillako hesiak, kontzertinak, migratzaileen heriotzak poliziaren eskuetara, adingabeen legez kanpoko kanporaketak...

Horri lotuta, Maroko Espainiaren eta EBren lehentasunezko bazkidea da migrazio-fluxuen kontrolari dagokionez; eta lankidetzaz horrek itsas patruilatze bateratua eta migratzaileen detekzioa eta interzeptazioa gauzatzea suposatzen du.

Migrazioa kontrolatzeko praktikak Marokoko lurralde osoan aplikatzen dira, eta batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdeetatik datozen pertsonak atxilotzen dira, herrialdearen barrualdera modu behartuan lekualdatzeko edota jatorrizko herrialdeetara deportatzeko. Jarduera hori gauatzeko, atxilotze-zentro ez-ofizialak erabiltzen dira, hala nola bunkerrak, eraikin abandonatuak, polizia-etxeetako zorupeak edo eskolak, non azkenean lekualdatuak edo deportatuak izango diren pertsonak atxikitzen diren; izan ere, migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboek salatu dutenez, pertsona horiek ez daude prestatuta askatasunaz gabetzeko, eta, beraz, haien baldintzak osasungaitzak eta gaitzesgarriak dira, eta, gainera, tortura fisikoa eta psikologikoa egiten da horietan.

Azkenik, adierazi behar dugu heriotza horien erantzukizuna mugak ixteko migrazio-politika krudel eta anker batzuei dagokiela. Politika horiek ez dira eraginkorrak immigrazioa kontrolatzeko helbururako, eta, gainera, sufrimendu handia eta giza eskubideak etengabe urratzen dituzte. Politika horien bidez, Espainiako Estatuak bere lurralde-osotasuna lehenesten du, migratzaileek askatasunez igarotzeko eta harrera duina eta integrala jasotzeko duten eskubidearen aurrean. Argudio hori erabiltzen du, halaber, Irun eta Hendaia arteko mugan korridore humanitarioak irekitzea ukatzeko, Bidasoa ibaiko tragediak saihestu, eta, horrela, mugak pertsonen aurretik jartzeko.

Guzti hori dela eta, Zaldibiako Udalak **ERABAKI DU**:

- 1.-** Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan gertatutako sarraskian poliziak izandako basakeria salatzea (behin-behineko balantzean, 37 dira hildakoak eta askoz ere larri zaurituak); eta elkartasuna adieraztea hildako eta zauritutako pertsonen, haien lagunei eta hurbilekoei.
- 2.-** Gertakari larri hauetan Estatuako segurtasun indarren parte-hartzea salatzea.
- 3.-** Mugak militarizatzearen eta kudeaketa kanpora ateratzearen inguruan egun aplikatzen diren migrazio-politikak salatzea.
- 4.-** Pertsona migrante guztien duintasuna eta giza eskubideen errespetua bermatuko dituen legezko bide seguruak irekitzea exijitzea.
- 5.-** Ikerketa independente bat egiteko eskaera egitea, gertakariak argitu eta dagozkion neurriak ezartzeko.
- 6.-** Hildako pertsonen gorpuzkiak berreskuratu, identifikatu eta jatorrizko herrialdeetara aberriratzea exijitzea, familien nahiak errespetatuz.

Zaldibian, 2022ko ekainaren 27an.